**LEHENA.-** Tolosako Udalbatza Plenoak, 2018ko otsailaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea arautzen duen Ordenantzaren testu bategina onartu zuen. Onartutako testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko martxoaren 21ean (57.zenbakia). Aipaturiko gunea, Pedro Tolosa pasealekuko 2.zenbakiko eraikinaren 1.solairuan kokatzen da, eta jabari publikoari lotuta dago ondasun eta zerbitzuen udal-inbentarioaren ziurtagirian jasota dagoen bezela.

**BIGARRENA.-** Horren haritik, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko apirilaren 23an egindako bilkuran, aipaturiko gunean sartzeko deialdia onartu zuen (GAO 81.zenbakia).

**HIRUGARRENA**.- Lehian oinarritutako jardunbidea garatu ondoren, eta Ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen zirela egiaztatu ondoren, Tolosako Udalak, 2022ko abenduaren 13an Lucia Fernandez-Renauri 2022/2905 eta Naiara Valcarlosi 2022/2906 Alkatetza dekretuen bidez, besteak beste, esleitu zitzaien Ekintzaileen Coworkingerako Oriaburu gunean xedaturiko eremuaren emakida, Ordenantza arautzaileak xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA,-** Naiara Valcarlosek 2022ko abenduaren 29an eta Lucia Fernandez-Renauk 2023ko urtarrilaren 02an bakoitzak Udal 2095 5067 10 1060024816 kontuan jarri zituztela 100€ fidantza gisa.

**KONTUTAN HARTURIK**

**LEHENA.-** Naiara Valcarlosek 2026ko maiatzaren 21ean (2026/7591 zenbakiarekin) eta Lucia Fernandezek ekainaren 8an (2026/7591 zenbakiarekin) erregistro bidez baja eskaera egin zutela. Aurkeztutako idatzian, Naiara Valcarlosek eta Lucia Fernandezek jakinarazi zutela Ekintzaileen Coworkingerako Oriaburu gunearen erabilerarako 3 urteko emakida hitzarmena jada amaitu dela, ondasunak egoera onean daudela eta kuotak ordaintzen jarraitu dutela 2026an emakida hitzarmena bukatu zenetik baja aurkeztu duten arte.

**BIGARRENA.-** 2026ko otsailaren 27an sartu zela udalaren erregistro elektronikoan 2026/3141 Lucia Fernandez-Renauk eta Naiara Valcarlosek Polis Lab S.L.ren izenean eta ordezkaritzan egindako eskaera.

**HIRUGARRENA:** 2018ko martxoaren 21ean GAOn 57. zenbakiarekin argitaratutako Ekintzaileen *Coworking*erako Oriaburu Gunea arautzen duen Ordenantzak 2.3. puntuan adierazten duen bezala, apirilaren 28an aurkeztu zutela haien proiektua hauen aurrean: Tolosaldea Garatzeneko Joxe Luis Urdangarin, Tolosako Udaleko zinegotzi Aitor Aguirresarobe, Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak Saileko buru Alaine Izagirre eta Tolosako Udaleko enplegu-teknikari Olatz Amunarriz.

**LAUGARRENA.-** Balorazio bilera honetan eskaera onartzea erabaki zela, Oriaburuko *Co-working*-eko helburuekin bat datorrelako eta enpresa berri honek inpaktu positiboa eta onura nabarmenak ekar diezazkiokelako eskualdeari, bere izaera berritzaile eta jasangarriari esker.

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

**BOSGARRENA.-** Pedro Tolosa, 2 pasealekuan kokatua dagoen Oriaburu eraikina Udal ondasuna dela udal-inbentarioaren ziurtagian jasotzen den bezela.

**SEIGARRENA.-** Tokiko gobernu batzarrak duela erabakitzeko eskumena, alkatearen 1707/2023 dekretuaren arabera ( 2023/08/14ko GAOn argitaratua, 156.zenbakian)

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, alkateak emandako ahalmenez baliatuta aho batez

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Lucia Fernandez eta Naiara Valcarlosen eskaera onartzea, orain arteko bakarkako emakidan baja ematea.

Bere garaian jarritako 100€ko fidantza itzultzea, beti ere, eskatutako fidantza berria (107,9€ koa) ordaindu eta gero.

Naiara Valcarlosi kontu korronte honetara: ES45 2095 5067 10 9120878592
Eta Lucia Fernandezi beste honetara: ES77 0128 6001 7801 0013 7893

**BIGARRENA.-** Polis Lab S.L.ren izenean eta ordezkaritzan diharduten Naiara Valcarlos eta Lucia Fernandezi zuzeneko **emakida onartzea** Pedro de Tolosa, 2 pasealekuko lehenengo solairuan kokatutako Oriaburu eraikineko Emari *Coworking*-ean aritzeko beti ere 1. eranskinean jasotako hitzarmenari lotuta.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenean adierazten den bezela, POLIS LAB S.L.-ri **215,6€** ko fidantza kobratzea. Fidantza honen zenbatekoa bi lanposturen eta bi hilabeteko epearen baliokidea da.

**LAUGARRENA.-.-** Hitzarmena onartzea eta zinegotziari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

**BOSGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari.

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

TOLOSAKO UDALA

2026IGBA0029

I Eranskina

| **EMAKIDA HITZARMENA** | **CONVENIO DE CONCESIÓN** |
|---|---|
| Tolosan, 2026ko uztailaren 7an | En Tolosa, a 07 de julio de 2026 |
| **BILDU DIRA** | **REUNIDAS** |
| **Alde batetik,** Maria Estibaliz Kortejarena Ugarte anderea Tolosako zinegotzi delegatua alkate-lehendakaria, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta. | **De una parte**, Dña. Maria Estibaliz Kortejarena Ugarte, concejala delegada del Ayuntamiento de Tolosa, asistida por Dña. Sara Berasategui Fuertes, secretaria del Ayuntamiento de Tolosa. |
| **Bestetik,** POLIS LAB S.L-REN izenean Lucía Fernandez-Renau Chozas, adinez nagusia, N.A.N zenb 50775496Y akiduna, eta Tolosako Zumalakarregi Pasealekua 4n helbideratua eta Naiara Valcarlos anderea, adinduna, N.A.N 35769802H zenbakiduna, eta Amarotz auzunea 23,1A-n 20400 Tolosan helbideratua. | **De otra parte,** en nombre y representación de POLIS LAB S.L. Lucía Fernandez-Renau Chozas mayor de edad, con DNI 50775496Y y domiciliada en Tolosa en Zumalakarregi Pasealekua 4 y Naiara Valcarlos mayor de edad, con DNI 3576902H domiciliada en Amarotz auzunea 23, 1ª. |
| Parte hartu du udal idazkari Sara Bersategui Fuertesek, egintza honen fede publikoa ematearren. | Asiste al acto la secretaria municipal Sara Berasategui Fuertes, para dar fe pública del mismo. |
| Esku hartu duten alderdiek elkarri aitortu diote emakida hitzarmen hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna, eta ondoko hau | Ambas partes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para la suscripción del presente documento, y |
| **ADIERAZI DUTE** | **MANIFIESTAN** |
| **LEHENA**.- Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2018ko otsailaren 27an egindako bileran, besteak beste, *Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea* arautzen duen Ordenantzaren Testu Bategina | **PRIMERO**.- La Corporación Municipal, en el Pleno celebrado con fecha 27 de febrero del 2018, aprobó, entre otros, el texto refundido de la Ordenanza reguladora del *Espacio* |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| onartu zuen. Onartutako testua argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko martxoaren 21ean, 57. zk.ko alean. Aipaturiko gunea, Pedro Tolosa pasealekuko 2. zk.ko eraikinaren 1. solairuan kokatzen da, eta jabari publikoarekin lotuta dago. | *Coworking Oriaburu para el emprendizaje,* texto que fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, el 21 de marzo del 2018, en el número 57. El mencionado espacio está ubicado en la planta primera del edificio sito en Pedro Tolosa pasealekua 2, y está vinculado al dominio público. |
| **BIGARRENA**.- Halaber, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko apirilaren 23an egindako bilkuran, aipaturiko gunean sartzeko deialdia egitea onartu zuen. Deialdia 2018ko apirilaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 81. alean. | **SEGUNDO**.- Asimismo, la Junta de Gobierno Local, en la sesión celebrada el 23 de abril del 2018, acordó realizar la convocatoria de acceso a este espacio de emprendizaje. La convocatoria fue publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el número 81, de fecha 27 de abril del 2018. |
| **HIRUGARRENA**.- Lehian oinarritutako jardunbidea garatu ondoren, eta Ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen zirela egiaztatu eta gero, Tolosako Alkatetzak, Tokiko Gobernu Batzarrean onartua, POLIS LAB S.L-REN izenean Lucía Fernandez-Renau Chozas, N.A.N zenb 50775496Y akiduna, eta Naiara Valcarlos anderea, N.A.N 35769802H zenbakiduna, esleitu zion *Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunean* kokaturiko eremuaren emakida, Ordenantza arautzaileak xedatutakoaren arabera. | **TERCERO**.- Una vez desarrollado el procedimiento de libre concurrencia, y después de verificar el cumplimiento de los requisitos establecidos en la Ordenanza, la alcaldía, mediante el acuerdo de la Junta del Gobierno Local, adjudicó a en nombre y representación de POLIS LAB S.L. Lucía Fernandez-Renau Chozas con DNI 50775496Y y Naiara Valcarlos, con DNI 3576902H , la concesión de un espacio en el centro *Coworking Oriaburu para el emprendizaje,* conforme a lo dispuesto en la Ordenanza reguladora. |
| **LAUGARRENA**.- Hitzarmen honen xedea da esleitutako emakidaren araubidea arautzea, beti ere Tolosako *Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea* arautzen duen Ordenantzaren Testu Bateginean xedaturikoarekin bat etorriz. | **CUARTO**.- El objeto de este convenio es regular la normativa de la concesión, pero siempre sujeto a lo dispuesto en la Ordenanza reguladora del *Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje.* |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| Horretarako, bildutakoek | Para ello, ambas partes |
|---|---|
| **HITZARTU DUTE** | **ACUERDAN** |
| **LEHENA**.- Hitzarmen honen xedea da Polis Lab S.Lren alde esleitu den jabari publikoko emakida administratiboa arautzea. Emakida administratiboak honako hauek eragingo ditu: Tolosako Pedro Tolosa pasealekuko 2. zk.an Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunean (1. solairuan) xedatutako gunean kokaturiko ondasunak:<br>1. Erabilera pribatiboko ondasunak: Mahai bat, aulkia, Udalaren wifi sarean sarbidea, funtzio anitzeko inprimagailua, takila, eta sarrerako giltzak.<br>2. Coworking eremuko emakidadun guztien erabilerako ondasunak: bilera gelak, erabilera anitzeko gelak, office-a, hozkailua, mikrouhina, proiektorea eta pantaila. | **PRIMERO**.- El objeto de este convenio es regular la concesión administrativa del dominio público adjudicado a favor de Polis Lab S.L. Esta concesión administrativa afecta a los siguientes bienes, ubicados en el espacio (1ª planta) Coworking Oriaburu para el emprendizaje, sito en Pedro Tolosa pasealekua 2 de Tolosa:<br>1. Bienes de uso privativo: Una mesa, silla, conexión a internet a través de la red wifi pública, impresora multifunción, taquilla, y llaves de acceso.<br>2. Bienes de uso común de todos y todas las concesionarias del espacio Coworking: salas de reuniones, salas multiusos, office, frigorífico, microondas, proyector y pantalla. |
| Halaber, emakidadunak Tolosako Udalari eskatu ahal izango dio ahotsa eta telekomunikazio-datuak igortzeko bere linea propioa kontratatzea. Kontratutik eratorritako gastuak emakidadunaren kontu joango dira. | Así mismo, la concesionaria podrá solicitar al Ayuntamiento la contratación de su propia línea de voz y datos de telecomunicaciones. Los gastos derivados del contrato serán a cargo de la concesionaria. |
| **BIGARRENA**.- Emakidadunak emakida esleitzeko jardunbidean aurkezturiko proiektuan xedaturiko jarduerak garatuko ditu, Tolosako *Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea* arautzen duen Ordenantzaren Testu Bateginean | **SEGUNDO**.-La concesionaria desarrollará las actividades definidas en el proyecto presentado en el procedimiento para la adjudicación de la concesión, de acuerdo con lo establecido en el Texto Refundido que regula Espacio Coworking Oriaburu para el |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| arautuakoaren arabera. Beraz, edozein jarduera aldaketak Tolosako Udalaren aurretiazko baimena beharko du. | emprendizaje. Por lo tanto, cualquier modificación de actividad requerirá la autorización previa del Ayuntamiento de Tolosa. |
| **HIRUGARRENA**.- Emakidaren gutxieneko iraupena sei hilabetekoa izango da, eta gehienez, hiru urtera luzatu ahal izango da. Horretarako, emakidadunak, sei hilabeteko epea amaitu baino hilabete bat lehenago, urtebeteko luzapena eskatu ahal izango du. Ondorengo luzapenak urtez urte eskatuko dira, beti ere epea amaitu baino hilabete bat lehenago gutxienez, hiru urtera arteko gehieneko iraupenaren mugarekin.<br><br>Kasu guztietan, Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneko Kudeaketa Batzordeak zentroan kokatutako proiektu guztien urteko balorazioa egingo du, bertan jarraitzeari buruzko iritzia baloratu eta onesteko. Kudeaketa Batzordearen urteko balorazioa negatiboa izango balitz, Tolosako udalak deuseztatu ahal izango du emakida hau. | **TERCERO**.- El período mínimo de la concesión será de 6 meses y podrá prorrogarse hasta un máximo de 3 años. Para ello, la concesionaria, un mes antes de la finalización de ese plazo de seis meses, podrá solicitar la prórroga de un año. Las prórrogas posteriores se solicitarán anualmente, siempre, como mínimo, un mes antes de la finalización del plazo correspondiente, pudiendo prorrogarse hasta un máximo de 3 años.<br><br>En todos los casos, se hará por parte del Comité de Gestión de Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje una valoración anual de todos los proyectos ubicados en el centro, para la valoración y aprobación de su continuidad en el mismo. En el caso de que la valoración anual del comité de gestión sea negativa se procederá a la resolución del convenio de concesión. |
| **LAUGARRENA**.- Emakidadunak lanpostu bakoitzeko, ondoko kanona ordainduko dio Tolosako Udalari, hitzarmena izenpetzen den unetik kontatzen hasita: Hileko 53,95 euro (53,95 €). Kanon honek ez du BEZik izango, jabari publikoko emakidaren kontraprestazioa delako.<br><br>Emakidadunak beharrezkoak diren aginduak emango ditu kanonaren ordainketak helbideratzeko. Era honetan, Tolosako Udalak hilero igorriko du kanonaren ordainagiria dagokion banku- | **CUARTO**.- La concesionaria abonará por cada puesto de trabajo el siguiente canon al Ayuntamiento, una vez suscrito el convenio de concesión: 53,95 euros (53,95 €) mensuales . A este canon no se le aplicará el IVA, por ser una contraprestación de la concesión de dominio público.<br><br>La concesionaria dará las órdenes pertinentes para la domiciliación del abono del canon. Así, el Ayuntamiento de Tolosa remitirá mensualmente el recibo del canon a |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| sukurtsalera, hilero hileko lehenego astean. | la sucursal correspondiente mensualmente, la primera semana de cada mes. |
| Hitzarmen honetan jasotako kanona ez ordaintzeak eskubidea emango dio Tolosako Udalari emakida deuseztatzeko emakidadunari egotzitako arrazoiengatik, entzuna izateko izapidea burutu ondoren. | En caso de no abonar el canon recogido en este convenio, el Ayuntamiento de Tolosa podrá anular la concesión por causas imputadas a la persona concesionaria, una vez finalizado el trámite de audiencia. |
| Tolosako Udalak eguneratu ahal izango du kanonaren zenbatekoa, dagokion azterketa ekonomikoa egin ondoren. | El Ayuntamiento de Tolosa podrá actualizar el importe del canon, después de realizar estudio económico. |
| Horretaz gain, emakidadunak jarriko du lanpostu bakoitzari bi hilabetetako kanonari dagokion kopurua (107,9 €) fidantza gisa, transferentzia bitartez Tolosako udaletxeko ondorengo kontu korronteko zenbakian: ES45 2095 5067 10 1060024816, eta dokumentu hau horren frogagiria da. | Además, la concesionaria, a modo de fianza, deposita el importe correspondiente al canon de dos meses por cada puesto de trabajo (107,9€), mediante transferencia a la siguiente cuenta corriente del ayuntamiento de Tolosa: ES45 2095 5067 10 1060024816, y este documento es el justificante. |
| Fidantza hau ofizioz itzuliko zaio emakidadunari hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren, betebehar guztiak betez gero. Bestelako kasuan, fidantza erabiliko da emakidadunak sor ditzakeen kalteei aurre egiteko. | La fianza será devuelta de oficio a la concesionaria una vez finalizado el periodo de vigencia del convenio, en caso de cumplir con todos los requisitos. En caso contrario, la fianza será utilizada para hacer frente a los daños que pueda originar la concesionaria. |
| **BOSGARRENA**.- Egonaldiaren erregimena ondoko hau izango da: | **QUINTO**.- El régimen de la estancia será el siguiente: |
| A) Arau komunak: | A) Normas comunes: |
| 1. Emakidadunak, emakida irauten duen denbora guztian, Ordenantzan xedaturiko baldintzak bete behar ditu, horien artean 7. artikuluan araututakoak, besteak beste: | 1. La concesionaria deberá cumplir durante toda la vigencia de la concesión con las condiciones establecidas en la Ordenanza, entre otras, con las recogidas en el artículo 7: |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| • Aurkeztutako proiektua garatzea<br>• Beharrezkoa da, pertsona juridikoaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentua indarrean egotea.<br>• Identifikazio Fiskaleko Zenbakia edukitzea.<br>• Gizarte Segurantzan alta egotea eta hango eta Ogasuneko betebeharretan egunean egotea. | • Desarrollar el proyecto presentado.<br>• En los casos que sea necesario, tener en vigor el documento acreditativo de la identidad de la persona jurídica.<br>• Estar en posesión del Número de Identificación Fiscal.<br>• Estar dada de alta en la Seguridad Social y estar al corriente en las obligaciones con dicha Administración y con Hacienda. |
| 2. Emakidadunak erabiliko du esleitutako eremua, eta erabilera hori pertsonala eta transferiezina izango da; horrenbestez, ezingo du laga ez osorik ez zati batean, ez dohainik, ez behin-behinean ere. | 2. Será la concesionaria quien utilice el espacio adjudicado, y ese uso será personal e intransferible; por lo tanto, no podrá cederlo en todo o parte, ni siquiera a título gratuito o accidental |
| 3. Jarduera hasteko eta garatzeko behar diren administrazio lizentziak eta baimenak edukiko ditu, jarduera honi dagokionez indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz. | 3. Deberá disponer de las licencias y autorizaciones administrativas que sean necesarias para el inicio y desarrollo de su actividad, de conformidad con la normativa vigente al respecto. |
| 4. Jarduerari hasiera emango dio emakida hitzarmena izenpetu eta hilabete bat igaro baino lehenago. | 4. Deberá comenzar su actividad en el espacio cedido en el plazo máximo de un mes a contar desde la fecha de la firma del contrato. |
| 5. Erabilera aldi baterako eten beharko balu, emakidadunak eskaera arrazoitua egingo dio Tolosako Udalari eta dagokion erabakia hartuko du Udalak ondoren. | 5. En caso de querer cesar temporalmente su utilización, la concesionaria realizará una solicitud razonada al Ayuntamiento, que adoptará el acuerdo correspondiente. |
| Behin baimendutako aldi baterako etetearen epea igaroz gero edo, gehienez ere, 3 hilabete baino gehiago pasa badira onartu gabeko benetako erabilerarik gabe, emakida deuseztatuko du Tolosako Udalak, aurretik emakidadunari | Una vez superado el plazo de cese temporal autorizado o en todo caso, excedido el plazo de 3 meses sin utilización efectiva no autorizada, el Ayuntamiento resolverá la concesión, después de conceder audiencia la concesionaria. Posteriormente, la |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| entzunaldia emanda. Ondoren, emakidadunak amaituko du bere erabilera eta itzuliko dizkio erabilitako ondasunak Tolosako Udalari jaso zituen baldintza berberetan. | concesionaria cesará su uso y devolverá los bienes utilizados en las mismas condiciones en que le fueron entregados. |
| 6. Dagokion eremuaren emakida amaitzen denean, emakidadunak bere jabetzako ondasun eta gauza guztiak eraman beharko ditu okupaturiko gunetik. Ez badu hala egiten, Tolosako Udalak eremutik kendu eta gorde ahal izango ditu, eta, hiru hilabeteko epean, emakida amaitzen den biharamunetik, suntsitu ahal izango ditu. | 6. Una vez finalizada la concesión del espacio correspondiente, la beneficiaria deberá retirar todas sus pertenencias del mismo. En el supuesto de no realizarlo, el Ayuntamiento de Tolosa podrá apartar y guardar las mismas, y pasado un plazo de 3 meses desde la finalización de la estancia, proceder a su destrucción. |
| B) Elementu komunei eta ordutegiari dagokienez: | B) En relación con los elementos comunes y horario: |
| — Elementu komunak: | — Elementos comunes: |
| Elementu komuntzat hartzen dira, izaeraren arabera, emakidadun guztiek erabiltzekoak eta aprobetxatzekoak direnak edo erabilera orokorrekoak direnak. | Tienen la consideración de elementos comunes todos aquellos que por su naturaleza sean susceptibles de uso y aprovechamiento común por las concesionarias, o bien sean de utilidad general. |
| Emakidadunak elementu komunak erabiltzeko eskubidea du, baldin eta ez badio eragozten erabiltzea gainerako emakidadunei, eta Tolosako Udalak ezartzen dituen arauen arabera egiten badu. Emakidadunen artean gatazka sortuz gero, Tolosako Udalak ebatziko du. | La concesionaria tiene derecho al uso de los elementos comunes de forma que no impida el uso de los mismos a los demás y de conformidad con las normas que establezca el Ayuntamiento de Tolosa, quien resolverá los conflictos que se susciten a este respecto. |
| — Ordutegia: | — Horario: |
| Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunea zabalik egongo da 7 egun/ 24 ordu. | El horario del Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje será 7 días/ 24 horas. |
| C) Tolosako Udalak emakidadunari eskaini beharreko zerbitzuak ondoko hauek izango dira: | C) En relación con los servicios a ofrecer por parte del Ayuntamiento a la concesionaria:<br>1. Servicios mínimos de carácter general: |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| 1. Gutxieneko zerbitzu orokorrak:<br>) Garbiketa eta mantentze-lana.<br>) Berokuntza.<br>) Aire girotua.<br>) Elektrizitatea.<br>) Ura | a) Limpieza y mantenimiento.<br>b) Calefacción.<br>c) Aire acondicionado.<br>d) Electricidad.<br>e) Agua |
| Emakidadunak eremura sartzeko dagokion giltza sorta jaso du une honetan, eta dokumentu hau horren frogagiria izango da . Behin emakida amaituta, emakidaren hartzaileak jaso dituen txartel guztiak entregatu beharko ditu, hiru eguneko epean. | La concesionaria recibe un juego de llaves de acceso en este momento y este documento será el justificante. Una vez finalizado el contrato de concesión, la concesionaria deberá entregar todas las tarjetas existentes en su poder en el plazo de tres días. |
| 2. Gutxieneko zerbitzu banakakoak: Izaera hori izango dute emakidadun bakoitzak indibidualki erabil ditzakeen zerbitzuak eta bereziki honako hauek: enpresa espazioetako altzariak. | 2. Servicios mínimos de carácter individual: Tendrán este carácter aquellos servicios susceptibles de uso individualizado por la concesionaria, y en particular: el mobiliario en los espacios empresariales. |
| Arrazoi objektiboek hala egitea justifikatzen badute, emakidadunak zerbitzu independenteak instalatu ahal izango ditu bere postuan. Horretarako, Tolosako Udalaren aurretiazko baimen idatzia beharrezkoa izango da. | La concesionaria, cuando razones objetivas así lo justifiquen, podrá instalar en su puesto de trabajo servicios independientes, previa autorización del Ayuntamiento de Tolosa. |
| 3. Bestelako zerbitzuak: | 3. Otros servicios: |
| Hauetaz gain, emakidadunak eskatu ahal izango dio Tolosako Udalari zerbitzu berriak emateko eta egokitzeak egiteko. Dagokion azterlana egin eta gero, Tolosako Udalak erabakiko du zerbitzua ematea edo egokitzeko baimenak ematea edo ez. Zerbitzu edo egokitzapen berrien kasuan, Tolosako Udalak aztertuko du | Cualquier concesionaria podrá solicitar al Ayuntamiento de Tolosa la prestación de nuevos servicios y realización de acondicionamientos. El Ayuntamiento de Tolosa, tras el estudio que corresponda, decidirá sobre su prestación o permisos de acondicionamiento, así como la repercusión del costo de implantación y mantenimiento a las concesionarias que usen los mismos. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| haien ezarpenaren eta mantenimenduaren kostuen eragina emakidadunarengan.<br><br>**SEIGARRENA.-** Aurreko klausuletan xedaturiko zereginez gain, Tolosako Udalak ondoko hauek beteko ditu, instalazioen kudeaketa eta administrazioari dagozkionak:<br><br>• Elementu komunen mantentzea, funtzionamendua eta kontserbazioa.<br>• Emakidadunari egitea kanonaren ordainagiriak eta kobrantzak.<br>• Euskararen normalizazioaren alorrean aholkua ematea emakidadunari. | **SEXTO**.- Además de las funciones establecidas en las cláusulas anteriores, el Ayuntamiento de Tolosa realizará las siguientes funciones de gestión y administración de las Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje instalaciones:<br><br>• Mantenimiento, funcionamiento y conservación de los elementos comunes.<br>• Facturación y cobro a los concesionarios.<br>• Asesoramiento en el ámbito de la normalización del euskera. |
| **ZAZPIGARRENA**.- Emakidadunaren bestelako betebeharrak<br><br>Aurretik aipatutakoez gain, emakidadunak ondoko betebeharrak izango ditu:<br><br>• Emakidan emandako ondasunak, eta, orokorrean, erabiltzen dituen ondasun guztiak zaintzea, eta emakida amaitutakoan, egoera onean itzultzea.<br>• Tolosako Udalari edota Tolosaldea Garatzen agentziari haiek eskaturiko informazioa ematea eta ikuskapen-jarduerak onartzea.<br>• Tolosako Udaleko edo Tolosaldea Garatzen Agentziako ordezkariak emakidan emandako eremuan | **SÉPTIMO**.- Otras obligaciones de la concesionaria<br><br>Además de las obligaciones mencionadas anteriormente, tendrá las siguientes:<br><br>• Cuidar los bienes de la concesión y, en general, todos los bienes utilizados, y devolverlos en buenas condiciones una vez finalizada la concesión.<br>• Facilitar al Ayuntamiento de Tolosa y a la Agencia Tolosaldea Garatzen la información que soliciten y aceptar las actividades de inspección.<br>• Permitir la entrada de representantes del Ayuntamiento de Tolosa y de la Agencia Tolosaldea Garatzen al espacio cedido en la concesión, siempre que se hayan identificado. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| sartzen uztea, beti ere identifikatu ondoren.<br><br>• Tolosako Udalak edota Tolosaldea Garatzen Agentziak eskaturiko dokumentazioa igortzea.<br><br>• Gizarte Segurantza eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko legeria errespetatzea.<br><br>• Tabakorik edo alkoholik ez kontsumitzea eraikinean.<br><br>• Emakidadunak ezingo du inolako obrarik egin emandako eremuan edota eraikinean.<br><br>• Emakidadunak ezingo du emakida laga edota azpikontratatu.<br><br>• Emakidadunak jakinaraziko dio Tolosako Udalari emakidan edota hitzarmen honetan araututakoan eman daitekeen edozein aldaketa.<br><br>• Emakidadunak errespetatu behar ditu beste emakidadunen eskubide eta jarduerak, eta kasu guztietan garatuko du bere jarduera besteei inolako eragozpenik sortu gabe.<br><br>• Emakidadunak izango du jardueratik erator daitezkeen ondorioen ardura. Horretarako, Ordenantzan xedaturiko erantzun zibileko poliza eguneratuta mantendu behar du emakidako epean zehar.<br><br>• Emakidadunak bere jardueran aplikatuko ditu Tolosako Udalak onarturiko Ordenantzaren 12.4 eta | • Remitir la documentación requerida por el Ayuntamiento de Tolosa o la Agencia Tolosaldea Garatzen.<br><br>• Respetar la Ley de Prevención de Riesgos Laborales y de la Seguridad Social.<br><br>• No consumir tabaco ni alcohol en el edificio.<br><br>• No podrá realizar obra alguna en el espacio cedido o en el edificio.<br><br>• No podrá ceder o subcontratar la concesión.<br><br>• Deberá notificar al Ayuntamiento de Tolosa cualquier modificación que pueda darse en la concesión o en lo regulado en este convenio.<br><br>• Deberá respetar los derechos y actividades de los demás concesionarios y siempre desarrollará su actividad sin originarles molestias.<br><br>• Será responsable de las consecuencias que puedan derivarse de la actividad. Para ello, deberá mantener actualizada la póliza de responsabilidad civil establecida en la Ordenanza en el periodo de vigencia de la concesión.<br><br>• Aplicará en su actividad los criterios lingüísticos establecidos en los artículos 12.4 y 14 de la Ordenanza aprobada por el Ayuntamiento de Tolosa. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| 14. artikuluetan xedatu dituen hizkuntza irizpideak.<br>• Emakidadunak sortutako materialean, *Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea*ren edota haren marka ofizialaren adierazlea: material inprimatuetan, plaketan, baliabide elektronikoetan, etab.<br>• Emakidadunak edozein sexismo mota ekidingo du. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material orotan, baldintza hauek bete beharko dira: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua,<br>dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta rol-aniztasuna eta genero-identitateak jasoko dituen irudia sustatzea. | • Deberá utilizar en el material que genere el logo del Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje o la imagen de su marca oficial: en el material impreso, placas, medios electrónicos…<br>• Evitará cualquier tipo de sexismo. Además, deberá cumplir con los siguientes requisitos en todo tipo de documento, publicidad, imagen o material: hacer un uso no sexista del lenguaje; evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas; y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género. |
| **ZORTZIGARRENA**.- Emakidadunari egin behar zaizkion jakinarazpenak bide elektronikotik gauzatuko dira. Halaber, emakidadunak ondoko helbide elektronikoa izendatu du jakinarazpenen oharrak jasotzeko: naiara.valcarlos@gmail.com luciafrenau@gmail.com<br><br>Tolosako Udalak, bere aldetik, ondoko helbidea izendatu du komunikazioak jasotzeko:<br><br>https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=71 | **OCTAVO**.- Las notificaciones a la concesionaria se realizarán mediante medios electrónicos. Así mismo, la concesionaria facilita el siguiente correo electrónico para recibir los avisos de notificación: naiara.valcarlos@gmail.com luciafrenau@gmail.com<br><br>El Ayuntamiento de Tolosa, por su parte, fija el siguiente correo para recibir las comunicaciones:<br><br>https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=71 |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| Tolosako Udalak igorritako jakinarazpenei dagokienez, kontuan hartuko da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, 14 eta 16.artikuluetan xedaturikoa. | En lo que respecta a las notificaciones remitidas por el Ayuntamiento de Tolosa, se tendrá en cuenta lo establecido por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas el los artículos 14 y 16. |
| **BEDERATZIGARRENA**.- Emakida amaitu egingo da ondoko kausaren bat gertatzen denean: | **NOVENO**.- La concesión finalizará en el caso de darse alguna de las siguientes causas: |
| 1. Epea amaitu delako. | 1. Por finalizar el plazo. |
| 2. Emakidaduna pertsona juridikoa izanez gero, desagertu delako. | 2. Por la extinción, en su caso, de la persona jurídica. |
| 3. Emakidadunak eskubidearen jabe izateko baldintzak galdu dituelako. | 3. Por la pérdida por parte dela concesionaria de las condiciones para ser titular del derecho. |
| 4. Ondasuna desagertu edota desafektatu delako. | 4. Por la desaparición o desafectación del bien. |
| 5. Aldeek espresuki erabaki dutelako | 5. Por acuerdo expreso de las partes. |
| 6. Emakidadunak bete ez dituelako hitzarmen honetan edota Ordenantzan jasotako baldintzak. Kasu honetan, Tolosako Udalari dagokio emakida deuseztatzeko erabakia hartzea, emakidaduna entzun ondoren. Halaber, kasu honetan, Tolosako Udalak emakidadunak jarritako fidantza konfiskatuko du, eta azken honek sortutako kalte-galerak ordaindu beharko ditu. | 6. Por incumplimiento por parte de la concesionaria de las condiciones de la Ordenanza o de este convenio. En este caso, corresponde al Ayuntamiento decidir la anulación de la concesión, después de conceder el trámite de audiencia a la concesionaria. Así mismo, en este caso, el Ayuntamiento confiscará la fianza puesta por la concesionaria y esta última deberá satisfacer los daños y perjuicios producidos. |
| 7. Interes publikoko arrazoiak direla medio, Tolosako Udalak aldebakarrez emakida | 7. Si, por razones de interés público, el Ayuntamiento ha decidido |

| | |
|---|---|
| bereganatzea erabaki duelako. Kasu horretan, emakidadunak ez du inolako indemnizazio-eskubiderik izango. | unilateralmente apropiarse de la concesión. En este caso, la concesionaria no tendrá derecho a indemnización alguna. |
| **HAMARGARRENA**.- Tolosako Udalak ondoko ahalmenak izango ditu: hitzarmena interpretatzea, zalantzak ebaztea, aldebakarrez aldatzea eta deuseztatzea. | **DÉCIMO**.- Son competencia del Ayuntamiento de Tolosa interpretar el convenio, resolver las dudas, modificarlo unilateralmente y anularlo. |
| **HAMAIKAGARRENA**.- Bere jarduera garatzerakoan, emakidadunak errespetatu behar du izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araudia. Era honetan, ezingo du zabaldu emandako zerbitzuetan egon daitekeen edozein datu pertsonal. | **UNDÉCIMO**.- En el desarrollo de la actividad, la concesionaria deberá respetar la normativa en vigor sobre la protección de datos de carácter personal. Así, no podrá difundir ningún dato personal recogido en los servicios prestados. |
| Emakidadunak espresuki onartzen du emakidarekin lotutako datu pertsonalak Tolosako Udalak tratatzea, eta hitzarmen honekin zeresanik duten beharretan erabiliak izatea. | La concesionaria acepta expresamente el tratamiento por parte del Ayuntamiento de los datos relacionados con la concesión y su uso en todo caso necesario que afecte al convenio. |
| Halaber, emakidadunak eskubidea izango du bere datu pertsonaletara sartzeko, datuak zuzentzeko edota baliogabetzeko, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera. | Así mismo, la concesionaria podrá ejercer su derecho a acceder a sus datos personales, a rectificarlos y/o anularlos, conforme a lo establecido en la normativa en vigor. |
| **HAMABIGARRENA**.- Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du, eta bertan arautzen ez dena ondoko hauek xedatuko dute:<br>• Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.<br>• Sektore Publikoko Hitzarmenak arautzen dituen urriaren 1eko 40/2015 Legea. | **DUODÉCIMO**.- El presente convenio tiene carácter administrativo y lo no regulado en el mismo estará sujeto a la siguiente normativa:<br>• *Ley 7/1985*, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| • Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.<br>• Administrazio Publikoetako Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legea, eta bere Erregelamendua.<br>• Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea eta Sektore Publikoko Araubidea arautzen dituen legeria. | • *Ley 40/2015 de 2 de octubre, Regulación de convenios en el sector público.*<br>• *Real Decreto 1372/1986*, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.<br>• *Ley 33/2003*, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.<br>• Legislación del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y de la normativa del Sector Público. |
| **HAMAHIRUGARRENA.-** Bide administratiboa agortzen duten akordioen aurka administrazioarekiko auzialdiko errekurtsoa jartzea izango da bidezkoa, Jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoaren arabera. Bestaldetik, administrazio helegiteen araubidea Lege honek xedatuko du: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.<br><br>Eta erabakitako guztiaren behar adinako konstantzia jasota gera dadin, hitzarmen honen hiru ale izenpetzen dira hasieran adierazitako leku eta datan, idazkari naizen honen aurrean, eta horren fede ematen dut. | **DECIMOTERCERO.-** Se podrá interponer recurso contencioso-administrativo contra los acuerdos que agotan la vía administrativa, de acuerdo con lo establecido en la ley que regula esa jurisdicción. Por otra parte, la normativa para los recursos administrativos será la establecida en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas<br><br>Para la debida constancia de todo lo convenido, se firma este convenio en ejemplar triplicado, en el lugar y fecha indicados al principio, ante mí, la secretaria, de todo lo cual doy fe. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| ZINEGOTZI DELEGATUA | EMAKIDADUNA |
|---|---|
| Maria Estibaliz Kortejarena Ugarte | Polis Lab S.L. |

**UDAL IDAZKARIA**
Sara Berasategui Fuertes

**4. PUNTUA.TOLOSAKO UDALAREN ETA ESKUALDEKO UDALEN ARTEKO ENPLEGU ETA TOKIKO GARAPEN PLANARI DAGOKION HITZARMENA ONARTZEA**

## IKUSIRIK

**LEHENA.-** Euskadiko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 80. artikuluak ezartzen du tokiko enplegu eta garapen planak direla tokiko enplegu politika publikoak planifikatzeko tresnak, jarduera ekonomikoa eta soziala suspertzeko eta, hala badagokio, eraldatzeko, hazkundea eta lan duina sortzeko helburuarekin, dauden baliabideak eta lurralde testuinguruko aukerak kontuan hartuta.

**BIGARRENA.-** Legeak berak ezartzen du, halaber, dagokion lurralde-eremuan dauden gizarte- eta ekonomia-eragileen partaidetza eraginkorra bermatu beharko dela, bai eta planean eragina duten eskumenak eta eginkizunak dituzten erakunde eta entitate publikoena ere, erakunde bakoitzak auto antolaketa-printzipioaren arabera ezartzen dituen formulen bidez.

**HIRUGARRENA**.- 81. artikuluaren arabera, 10.000 biztanletik gorako udalerriak behartuta daude enplegu-planak eta toki-garapeneko planak onartzera. Biztanleria-baldintza hori betetzen ez duten udalerriek ere aukera izango dute enplegu-planak eta toki-garapeneko planak onartzeko.

**LAUGARRENA,-** Lege horren laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du, halaber, Eusko Jaurlaritzak Enpleguaren Euskal Estrategia egokitzea onartzen duenetik urtebeteko epean, 81. artikuluan aipatzen diren udalerriek Enpleguko eta Toki Garapeneko Planak onartuko dituztela (ETGP). 2025eko ekainaren 24an, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak Enpleguaren Euskal Estrategia egokitzea onartu zuen.

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

**BOSGARRENA,-** Bestalde, hirugarren xedapen iragankorrak Enplegurako eta Tokiko Garapenerako Lankidetza Funtsa sortzen du. Funts horren esleipena eta banaketa urtero egingo da, biztanleriaren tamaina, langile-kostuak, baliabide materialak eta gauzatze-kostuak kontuan hartuta. Transferentzia horiek ez dira dirulaguntzen araubidearen mende egongo.

**SEIGARRENA.-** 15/2023 Legearen, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2025eko irailaren 9ko Erabakiaren eta 2026ko martxoaren 6ko Aginduaren arabera, enpleguaren eta toki-garapenaren arloko lankidetzarako funtsaren baliabideen banakako esleipena egin da, eta, ondorioz, toki-erakunde bakoitzari dagokion esleipena gauzatu zaio.

**ZAZPIGARRENA.-** Bestalde, aipatutako Enplegu eta Tokiko Garapen Plana (ETGP) egiteko eta ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak, 2026-2030 aldirako, bost fasetan egituratutako metodologia ezarri du, honako fase hauekin: diagnostikoa, definizio estrategikoa, planaren onarpena, ezarpena eta ebaluazioa.

**ZORTZIGARRENA.-** Tolosako Udalari, 20.000 biztanletik gorako udalerria denez, 133.447,57 euro transferitu zaizkio, aurreikusitako bost faseetatik lehenengo hirurak garatzeko; hau da, diagnostikoa egitea, ETGP diseinatzea eta haren hasierako ezarpena gauzatzea, aipatutako araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

**KONTUTAN HARTURIK**

**LEHENA.-** Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak xedatzen duenez, udalek eskumen propioak baliatu ahal izango dituztela honako eremu material hauetan: «25) Tokiko garapen ekonomiko eta soziala eta enplegurako tokiko politikak edo planak».

**BIGARRENA.-** Tolosaren errealitate sozioekonomikoa eta enpleguaren arloa eskualde-mailako dinamikan kokatzen direla kontuan hartuta, egokitzat jotzen dela egin beharreko lanak eskualde-ikuspegitik garatzea eta, ahal den neurrian, eskualde osora hedatzea. Horretarako, eskualdeko gainerako udalerriei, interesa badute, proiektura atxikitzeko aukera ematen zaie.

**HIRUGARRENA.-** Helburu hori erdiesteko, udalen arteko hitzarmen bat sinatuko dela, eta bertan finkatuko direla bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak (eranskinean jasota dago hitzarmena).

**LAUGARRENA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren araberako kudeaketa ekonomikoa garatzea, eta bere eskumeneko mugen barruan gastuak xedatzea.

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

**BOSGARRENA.-** Tokiko gobernu batzarrak duela beste administrazioekin lankidetza-hitzarmenak onartzeko eskumena, alkatearen 1707/2023 dekretuaren arabera (2023/08/14ko GAOn argitaratua, 156.zenbakian).

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, alkateak emandako ahalmenez baliatuta aho batez

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Enplegu eta Tokiko Garapen Plana (ETGP) aurrera eraman ahal izateko, Tolosako Udalaren eta eskualdeko gainerako udalen arteko hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA.-** Alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunei eta Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak, Idazkaritza eta Kontuhartzailetza sailei.

| |
|---|
| **LANKIDETZA HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEKO UDALERRIEN ARTEKOA, 2026-2030 ALDIKO ENPLEGUKO ETA TOKI-GARAPENEKO PLANA (ETGP) GAUZATZEKO** |
| Tolosan, azken sinadura elektronikoaren datan, |
| **BILDU DIRA** |
| **Alde batetik, MARIA ESTIBALITZ KORTEJARENA UGARTE**, Sara Berasategui Fuertes idazkariaren laguntzarekin. Azken horrek zinegotziaren izenean eta ordezkaritzan parte hartzen du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetza Dekretuan xedatutakoaren arabera. |
| **Beste alde batetik, honako hauek:** |
| - ION ZUBIZARRETA ALDAIA jauna, ABALTZISKETAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 44.163.244-R), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko ekainaren 17ko ebazpenaren bidez. |
| - CRISTINA RODRIGUEZ MENDICUTE andrea, ADUNAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72.439.784L), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 15eko ebazpenaren bidez. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| - | ALAZNE URKIZU GALARRAGA andrea, ALBIZTURko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 44.333.006-T), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko ekainaren 17ko ebazpenaren bidez. |
| - | REGINA SORARRAIN LASA andrea, ALEGIAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72437219F), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko urriaren 3ko ebazpenaren bidez. |
| - | IÑAKI XABIER IRAZABALBEITIA FERNANDEZ jauna, ALKIZAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 15922304W), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Ohiko Udalbatzarraren 2023ko abuztuaren 24ko erabakiaren bidez. |
| - | XABIER OLANO JAUREGI jauna, ALTZOko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 15942140N), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko urriaren 2ko ebazpenaren bidez. |
| - | BEATRIZ UNZUE ESNAOLA andrea, AMASA-VILLABONAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 35774909L), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko urriaren 4ko ebazpenaren bidez. |
| - | MIKEL ARTEAGA ZABALA jauna, AMEZKETAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72512949K), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 1eko ebazpenaren bidez. |
| - | EGOITZ LUISA URKOLA jauna, ANOETAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72481667L), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 5eko ebazpenaren bidez. |
| - | LARRAITZ ALKORTA AIZPURUA andrea, ASTEASUko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 34108337G), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2025eko irailaren 29ko ebazpen bidez. |
| - | UGAITZ GARMENDIA AURKIA jauna, BALIARRAINgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 73035287Y), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko urriaren 3ko ebazpenaren bidez. |
| - | IÑAKI TELLERIA BENGOECHEA jauna, BELAUNTZAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72.499.269-A), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko ekainaren 17ko ebazpenaren bidez. |
| - | ANDONI ZURIARRAIN ITURBE jauna, BERASTEGIko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72453803P), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 4ko ebazpenaren bidez. |
| - | AITZOL IZQUIERDO DIAZ DE GUEREÑU jauna, BERROBIko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72498790F), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 5eko ebazpenaren bidez. |
| - | IÑAKI ERRAZKIN ARTOLA jauna, BIDANIA-GOIATZko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 34088698F), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2026ko martxoaren 25eko ebazpenaren bidez. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | |
|---|---|
| - | OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA andrea, ELDUAINgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72481789A), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 5eko ebazpenaren bidez. |
| - | EIDER OLAZAR ELDUAIEN andrea, GAZTELUko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 35779008R), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko azaroaren 10eko ebazpenaren bidez. |
| - | LUIS ARANA GOYA jauna, HERNIALDEko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72.461.525-W), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko ekainaren 17ko ebazpenaren bidez. |
| - | IGOR ZAPIRAIN LIZARRIBAR jauna, IBARRAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 35776801W), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko azaroaren 16ko ebazpenaren bidez. |
| - | ALBA GARMENDIA CASTAÑOS andrea, IKAZTEGIETAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72525097W), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko uztailaren 24ko ebazpenaren bidez. |
| - | GORKA MURUA MACUSO jauna, IRURAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 44142319Y), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko uztailaren 27ko ebazpenaren bidez. |
| - | MARIA TERESA ARANA PEREZ andrea, LARRAULgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 20169571C), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Ohiko Udalbatzarraren 2023ko urriaren 10eko erabakiaren bidez. |
| - | JOSE RAMON EIZAGIRRE SORONDO jauna, LEABURU-TXARAMAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 15983045T), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko urriaren 4ko ebazpenaren bidez. |
| - | IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN jauna, LIZARTZAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72445561T), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko azaroaren 10eko ebazpenaren bidez. |
| - | MIGUEL ANGEL ARSUAGA AZURMENDI jauna, ORENDAINgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 15980724W), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 4ko ebazpenaren bidez. |
| - | MIREN GURUTZE ETXEZABAL ITURRIOZ andrea, OREXAko Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72548256T), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko azaroaren 9ko ebazpenaren bidez. |
| - | MAITE AMENABAR ALCORTA andrea, ZIZURKILgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena (NAN: 72482208P), eta hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, Alkatetzaren 2023ko irailaren 26ko ebazpenaren bidez. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna dutela, eta, horretarako, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

LEHENA.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak xedatzen duenez, udalek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako eremu material hauetan: «*25) Tokiko garapen ekonomiko eta soziala eta enplegurako tokiko politikak edo planak*».

BIGARRENA.- Euskadiko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 80. artikuluak ezartzen du tokiko enplegu eta garapen planak direla tokiko enplegu politika publikoak planifikatzeko tresnak, jarduera ekonomikoa eta soziala suspertzeko eta, hala badagokio, eraldatzeko, hazkundea eta lan duina sortzeko helburuarekin, dauden baliabideak eta lurralde testuinguruko aukerak kontuan hartuta.

HIRUGARRENA.- Legeak berak ezartzen du, halaber, dagokion lurralde-eremuan dauden gizarte- eta ekonomia-eragileen partaidetza eraginkorra bermatu beharko dela, bai eta planean eragina duten eskumenak eta eginkizunak dituzten erakunde eta entitate publikoena ere, erakunde bakoitzak auto antolaketa-printzipioaren arabera ezartzen dituen formulen bidez.

LAUGARRENA.- 81. artikuluaren arabera, 10.000 biztanletik gorako udalerriak behartuta daude enplegu-planak eta toki-garapeneko planak onartzera. Biztanleria-baldintza hori betetzen ez duten udalerriek ere aukera izango dute enplegu-planak eta toki-garapeneko planak onartzeko.

BOSGARRENA.- Lege horren laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du, halaber, Eusko Jaurlaritzak Enpleguaren Euskal Estrategia egokitzea onartzen duenetik urtebeteko epean, 81. artikuluan aipatzen diren udalerriek Enpleguko eta Toki Garapeneko Planak onartuko dituztela (ETGP). 2025eko ekainaren 24an, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak Enpleguaren Euskal Estrategia egokitzea onartu zuen.

SEIGARRENA.- Bestalde, hirugarren xedapen iragankorrak Enplegurako eta Tokiko Garapenerako Lankidetza Funtsa sortzen du. Funts horren esleipena eta banaketa urtero egingo da, biztanleriaren tamaina, langile-kostuak, baliabide materialak eta gauzatze-kostuak kontuan hartuta. Transferentzia horiek ez dira dirulaguntzen araubidearen mende egongo.

ZAZPIGARRENA.- 15/2023 Legearen, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2025eko irailaren 9ko Erabakiaren eta 2026ko martxoaren 6ko Aginduaren arabera,

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

enpleguaren eta toki-garapenaren arloko lankidetzarako funtsaren baliabideen banakako esleipena egin da, eta, ondorioz, toki-erakunde bakoitzari dagokion esleipena gauzatu zaio.

ZORTZIGARRENA.- Bestalde, aipatutako Enplegu eta Tokiko Garapen Plana (ETGP) egiteko eta ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak, 2026-2030 aldirako, bost fasetan egituratutako metodologia ezarri du, honako fase hauekin: diagnostikoa, definizio estrategikoa, planaren onarpena, ezarpena eta ebaluazioa.

BEDERATZIGARRENA.- Tolosako Udalari, 20.000 biztanletik gorako udalerria denez, 133.447,57 euro transferitu zaizkio, aurreikusitako bost faseetatik lehenengo hirurak garatzeko; hau da, diagnostikoa egitea, ETGP diseinatzea eta haren hasierako ezarpena gauzatzea, aipatutako araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

HAMARGARRENA.- Eusko Jaurlaritzak argitaratutako memoria ekonomikoan aurreikusten denez, 2027. urtetik aurrera eta 2030. urtera arte, Tolosako Udalak eta proiektura atxikitzen diren eskualdeko gainerako udalerriek, Enplegurako eta Tokiko Garapenerako Lankidetza Funtsaren bidez, urtero, finantzaketa jasoko lukete. Finantzaketa hori ETGPren laugarren eta bosgarren faseak garatzera bideratuko litzateke; hau da, planean jasotako estrategiak eta proiektuak ezarri, ebaluatu eta etengabe hobetzeko.

HAMAIKAGARRENA.- Tolosaren errealitate sozioekonomikoa eta enpleguaren arloa eskualde-mailako dinamikan kokatzen direla kontuan hartuta, egokitzat jotzen da egin beharreko lanak eskualde-ikuspegitik garatzea eta, ahal den neurrian, eskualde osora hedatzea. Horretarako, eskualdeko gainerako udalerriei, interesa badute, proiektura atxikitzeko aukera ematen zaie.

**KLAUSULAK**

**Lehena: Xedea.**

1. Lankidetza-hitzarmen honen xedea da Tolosaldeko udalerrien arteko lankidetza arautzea, 2026-2030 aldiko Enpleguko eta Toki Garapeneko Plana (ETGP) garatu, ezarri eta ebaluatzeko, beti ere, horretarako finantzaketa jasotzen bada.

**Bigarrena: Iraupena.**

2. Hitzarmen honen indarraldia 2030eko abenduaren 31ra artekoa izango da, azken sinadura elektronikoa egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hala ere, aldeek hala adosten badute, eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako kronograman aldaketak gertatzen badira, hitzarmena luzatu ahal izango da xede diren jarduketak amaitzeko beharrezkoa den denboraz, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| Hirugarrena: Enkargua Tolosaldea Garatzen SA, eskualdeko garapen-agentziari. |
|---|
| 1. Tolosako Udalak, 2022ko ekainaren 7an egindako Osoko Bilkuran, onartu zuen Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-sozietatea Udalaren bitarteko propio izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, izendapen-akordioarekin bat egin zuten eskualdeko gainerako udalerriekin batera. |
| 2. Bestalde, Tolosaldea Garatzen SAk bere estatutuetan jasotzen dituen funtzioen artean, oro har, jasotzen da xede soziala betetzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak garatzea. Horretarako, elkarteak, eskaera egiten zaionean, laguntza teknikoa emango die udalei, bere xede sozialekoak diren gaietan. |
| 3. Tolosaldea Garatzen SAko estatutuen arabera, bere xede soziala hau da: «*Tolosaldeko udalen biziberritze eta ekonomia garapenerako lagun lezaketen jarduera guztiak burutzea, enpresen eta enpleguaren sustapena barne, eta baita herrietako zerbitzu publikoen eskaintzarako elkarlana eta koordinazioa indartu eta sostengatzea ere*». |
| 4. Hitzarmen honen xedeekin bat etorriz, Tolosako Udalak erabaki du 2026ko ekitaldian Tolosaldea Garatzen SAri, eskualdeko bitarteko propioa den aldetik, enkargu bat egitea, Enpleguko eta Tokiko Garapeneko Planaren (ETGP) diagnostikoa egiteko, plana diseinatzeko eta haren hasierako ezarpena gauzatzeko, ETGP eta hari lotutako jarduketak eskualde-ikuspegitik garatzea egokitzat jotzen delako. |
| 5. Era berean, gainerako udalerri sinatzaileek adierazten dute ados daudela hitzarmen honetatik eratorritako jardueren gauzatze teknikoa dagokion bitarteko propioaren enkarguaren bidez artikulatzearekin. |
| 6. Halaber, ETGPren ezarpenari, ebaluazioari eta etengabeko hobekuntzari lotutako etorkizuneko jarduketak ere bide beretik artikulatu ahal izango dira, baldin eta horretarako beharrezkoa den finantzaketa eskuratzen bada, eta udal eskudunek hala erabakitzen badute. |
| 7. ETGP eskualde-mailan landuko den plan estrategiko komuna izango da, eta udal sinatzaile bakoitzak bere egingo du, bere eskumenen esparruan garatu eta ezartzeko. |
| 8. Hitzarmenaren garapen operatiboa eta koordinazio teknikoa bermatzeko, Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzen SAk Koordinazio Batzorde Teknikoa eratuko dute, bitarteko propioaren enkarguan ezarritakoaren arabera. |
| **Laugarrena: Aldeen arteko konpromiso eta betebeharrak.** |
| Aldeek honako konpromiso eta betebehar hauek hartzen dituzte haien gain: |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | | |
|---|---|---|
| **a)** | **Tolosako Udalak:** | |
| | a) | Enpleguko eta Toki Garapeneko Planaren (ETGP) eskualde-mailako **lankidetza-prozesua sustatzea** eta koordinatzea, hitzarmen hau sinatzen duten udalerrien arteko elkarlana bermatuz. |
| | b) | Tolosaldea Garatzen SA garapen-agentziari **transferitzea** Euskadiko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Enplegurako eta Tokiko Garapenerako **Lankidetza Funtsetik jasotzen dituen funtsak,** urtero onartuko den I. eranskineko aurrekontuaren arabera, Enpleguko eta Tokiko Garapeneko Planean (ETGP) aurreikusitako jarduketak finantzatzeko, funtsak jaso eta hilabeteko bateko epean. |
| | c) | Enpleguko eta Toki Garapeneko Planaren (ETGP) diagnostikoa, diseinua eta hasierako ezarpenaren jarraipena egitera bideratuko duen gehieneko kopurua 133.447,57 eurokoa izango da, 2026ko martxoaren 6ko Aginduaren arabera helburu horretarako esleitutako funtsen bidez. |
| | d) | Enpleguko eta Toki Garapeneko Planaren (ETGP) koordinazio, jarraipen eta garapen egokirako beharrezko **giza baliabideak jartzea**, planaren izaera eta konplexutasunarekin bat datozen profil tekniko, esperientzia eta ezagutza egokiak dituzten langileen bidez, Tolosaldea Garatzen SAk bere gain hartzen duen lidergo eta koordinazio teknikoarekin elkarlanean. Hitzarmen hau gauzatzeko aurreikusitako giza baliabideen esleipena eta dedikazioa, Tolosaldea Garatzen SArena nahiz Tolosako Udalarena, I. eranskinean jasoko dira, eta urtero eguneratu ahal izango dira hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutakoaren arabera. |
| | e) | ETGPren ezarpena, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza koordinatzeko eta garatzeko, urtero, **Tolosaldea Garatzen SAri dagokion enkargua formalizatzea**, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren eta hitzarmen honen aurreikuspenen arabera. |
| | f) | Planaren finantzaketari, jarraipenari eta justifikazioari lotutako **administrazio-betebeharrak** betetzea. |
| | g) | Tolosaldea Garatzen SA bitarteko propioari dagokion **enkargua izapidetzea** eta formalizatzea, Enpleguko eta Toki Garapeneko Planaren (ETGP) diagnostikoa, diseinua eta hasierako ezarpenaren jarraipena egiteko, dagokion enkarguan ezarritako baldintzen arabera. |
| | h) | Urteroko enkarguaren bidez estali ezin diren beharretarako, beharrezko laguntza tekniko osagarriak **kontratatzea edo dagozkion kontratazio-prozedurak** sustatzea. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| | | |
|---|---|---|
| | | |
| | i) | Tolosaldea Garatzen SAri egindako **enkarguen jarraipen teknikoa eta ekonomikoa egitea**, jarduketen garapen egokia, baliabideen erabilera zuzena eta aurreikusitako helburuen betetzea bermatzeko. |
| | j) | Diagnostikoa, planaren diseinua eta jarduketen garapena egiteko beharrezkoa den **informazioa, datuak eta dokumentazioa** ematea, betiere indarrean dagoen araudiaren eta datuen babesaren arloko betebeharren arabera. |
| | k) | Hitzarmenaren **jarraipen-batzordean** parte hartzea. |
| **b)** | **Atxikitako eskualdeko gainontzeko udalerriek:** | |
| | l) | Planaren **eskualde-ikuspegia sustatzea eta udalerrien arteko lankidetza** erraztea. |
| | m) | Tolosaldea Garatzen SA garapen-agentziari **transferitzea** Euskadiko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Enplegurako eta Tokiko Garapenerako **Lankidetza Funtsetik jasotzen dituen funtsak,** urtero onartuko den I. eranskineko aurrekontuaren arabera, Enpleguko eta Toki Garapeneko Planean (ETGP) aurreikusitako jarduketak finantzatzeko, funtsak jaso eta hilabeteko bateko epean. |
| | n) | ETGPren ezarpena, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza koordinatzeko eta garatzeko, **urtero, Tolosaldea Garatzen SAri dagokion enkargua formalizatzea,** une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren eta hitzarmen honen aurreikuspenen arabera. |
| | o) | Urteroko enkarguaren bidez estali ezin diren beharretarako, beharrezko laguntza tekniko osagarriak **kontratatu edo dagozkion kontratazio-prozedurak** sustatzea. |
| | p) | Planaren finantzaketari, jarraipenari eta justifikazioari lotutako **administrazio-betebeharrak** betetzea. |
| | q) | Enpleguko eta Toki Garapeneko Planaren (ETGP) diagnostiko-, diseinu- eta plangintza-prozesuetan **modu aktiboan parte hartzea**, bileretan, lan-saioetan, kontraste-dinamiketan eta koordinazio-foroetan parte hartuz. |
| | r) | Diagnostikoa, planaren diseinua eta jarduketen garapena egiteko beharrezkoa den **informazioa, datuak eta dokumentazioa** ematea, betiere indarrean dagoen araudiaren eta datuen babesaren arloko betebeharren arabera. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| |
|---|
| s) Hitzarmenaren **jarraipen-batzordean** parte hartzea. |
| **Bosgarrena: Jarraipen Batzordea.** |
| Hitzarmen honen jarraipena, koordinazioa eta gobernantza instituzionala bermatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. |
| Batzorde hori udalerri sinatzaile bakoitzak izendatutako ordezkariek osatuko dute, eta, hala badagokio, Tolosaldea Garatzen SAko ordezkariek ere parte hartu ahal izango dute, aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko. |
| Jarraipen Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira:<br>1. Hitzarmenaren garapenaren eta betetze-mailaren jarraipena egitea.<br>2. Enpleguko eta Toki Garapeneko Plana (ETGP) onartzea eta, urtero, lehentasunen eta eskuragarri dauden baliabideen arabera gauzatuko diren jarduketei oniritzia ematea.<br>3. Enpleguko eta Toki Garapeneko Planaren (ETGP) garapenaren berri partekatzea eta haren lanketa orokorraren jarraipena egitea.<br>4. Udalerri sinatzaileen arteko lankidetza, koordinazioa eta informazio-trukea sustatzea.<br>5. Planaren lehentasun estrategikoak eta jarduketa-ildo nagusiak kontrastatzea.<br>6. Hitzarmenaren garapenean sor daitezkeen zailtasun, gorabehera edo interpretazio-zalantzak aztertzea eta, hala badagokio, horiei aurre egiteko neurriak edo irizpideak proposatzea.<br>7. Hitzarmenaren eta planaren garapenarekin lotutako hobekuntza-proposamenak egitea.<br>8. Beharrezkotzat jotzen diren eragile, aditu edo erakundeak bileretan parte hartzera gonbidatzea. |
| Batzordea, gutxienez, sei hilean behin bilduko da, eta beharrezkoa den guztietan ere bai, alderdi sinatzaileetako edozeinek hala eskatuta. |
| **Seigarrena: Jardueren kronograma eta metodologia.** |
| Alderdi sinatzaileek proiektua behar bezala burutzeko konpromisoa hartzen dute, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarekin adosten den kronogramaren eta metodologiaren arabera. |
| **Zazpigarrena: Enplegurako eta Tokiko Garapenerako Lankidetza Funtsa.** |
| 1. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako memoria ekonomikoan aurreikusitakoaren arabera, 2027. urtetik aurrera Enplegurako eta Tokiko Garapenerako Lankidetza Funtsaren bidez jasotzen den finantzaketa ETGPren laugarren eta bosgarren faseak garatzera bideratuko da; hau da, planean jasotako estrategiak eta proiektuak ezarri, ebaluatu eta etengabe hobetzera. |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

2. Fase horietan garatuko diren jarduketak eta proiektuak ETGP egiteko prozesuan egindako diagnostikoaren, identifikatutako beharren eta ezarritako lehentasun estrategikoen arabera zehaztuko dira.

3. Horretarako, ETGPren idazketaz arduratzen den enpresak, diagnostikoan identifikatutako beharrak eta lurraldearen lehentasun estrategikoak oinarri hartuta, ETGPren proposamena prestatuko du.

4. Proposamen horri Jarraipen Batzordeak oniritzia eman ondoren, hitzarmen honetara atxikitako udal bakoitzaren osoko bilkurak eta Tolosaldea Garatzen SAren Administrazio Kontseiluak onartuko dute. Onartutako ETGPn jarduketen eta proiektuen lehentasun-ordena jasoko da, eta, ondoren, Jarraipen Batzordeak, urtero, oniritzia emango dio, lehentasun horien eta une bakoitzean eskuragarri dauden baliabideen arabera gauzatuko diren jarduketen urteko proposamenari.

5. Nolanahi ere, Enplegurako eta Tokiko Garapenerako Lankidetza Funtsaren esparruan jasotako eta aurreikusitako jarduketak finantzatu ondoren erabili gabe gera litezkeen baliabide ekonomikoak funtsari atxikita geratuko dira, udal bakoitzak egindako ekarpenaren arabera identifikatuta eta bereizita. Baliabide horiek ETGPren garapenarekin lotutako jarduketak finantzatzera bideratuko dira, bereziki planean aurreikusitako proiektu estrategikoak abiarazi eta garatzera, plana gauzatzeko beharrezko giza baliabideak finantzatzera eta ETGPren ebaluazio- eta etengabeko hobekuntza-faseak indartzera. Baliabide horien aplikazio zehatza hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak baliozkotu eta lehenetsiko du, udal bakoitzak bere ekarpenaren esparruan adierazitako lehentasunak kontuan hartuta.

**Zortzigarrena: Elkarri informazioa emateko betebeharra.**

Alderdiek hitzarmen hau sinatu ondoren gerta daitekeen eta hitzarmenaren helburuekin zerikusia duen edozein gertaera edo zirkunstantziaren berri izan beharko dute.

**Bederatzigarrena: Hitzarmena berritzea eta aldatzea.**

1. Lankidetza-hitzarmen hau sinatu duten alderdiek aitortutako eskubideak eta betebeharrak ezin izango zaizkie hirugarren erakundeei laga beste alderdi sinatzailearen baimenik gabe.
2. Hitzarmen honen aldaketak ez du baliorik izango, baldin eta ez badute alderdi sinatzaile guztiek sinatzen.

**Hamargarrena: Hitzarmena ez betetzea.**

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| |
|---|
| 1. Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoren bat betetzen ez badu, konpromisoak bete dituen aldeak ahalmena izango du konpromisoa betetzeko eskatzeko edo, bestela, lankidetza-hitzarmena suntsiarazteko. |
| 2. Edonola ere, Jarraipen Batzordeak lehen auzialdian aztertu beharko du ez-betetzea. |
| 3. Ez-betetzeren bat gertatuz gero, alderdi bakoitza behartuta dago, hala badagokio, alderdi betearazleari eragindako kalteak konpontzera. |
| **Hamaikagarrena: Hitzarmena amaitzeko arrazoiak.** |
| Hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak honako hauek izango dira: |
| a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, luzatzeko erabakirik hartu gabe.<br><br>b) Hartutako betebeharren ez-betetze larria.<br><br>c) Alderdi sinatzaileen akordioa.<br><br>d) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste edozein arrazoi. |
| **Hamabigarrena: Iraungitzea.** |
| Hitzarmen hau iraungi egingo da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan. |
| **Hamahirugarrena: Gainerako legeria.** |
| Hitzarmen honetan araututa ez dagoena lege-arau hauetan xedaturikoarekin bete beharko da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. |
| **Hamalaugarrena: Desadostasunak konpontzea.** |
| Hitzarmen honen interpretazioak, aldaketak, ondorioek eta abarrek sor ditzaketen auziak, lehenik eta behin, hitzarmenaren Jarraipen Batzordean ebatziko dira. Adostasunik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena edozein auzitarako. |
| **Hamabosgarrena: Datu pertsonalen babesa.** |
| Alderdiek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian ezarritakoa betetzeko, aplikatzekoak diren baldintzetan. Hona hemen alor horretan bete beharrekoak: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| |
|---|
| apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena. |
| **Hamaseigarrena: Argitalpena.** |
| Hitzarmen hau Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da, bat etorrita Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluaren b) eta c) apartatuetan, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluaren e) eta h) apartatuetan ezarritakoarekin. |
| |
| Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, eta nik, idazkari naizen honek, horren fede ematen dut. |
| ZINEGOTZI DELEGATUA<br>. |
| Nire aurrean, |
| UDAL IDAZKARIA |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

TOLOSAKO UDALA

2026IGBA0029

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

# I. ERANSKINA: ETGP garatzeko aurreikusitako giza baliabideak

| | ESKUALDEKO ENPLEGUKO ETA TOKI-GARAPENEKO PLANA | LIZITAZIOA (2026) | | BARNEKO BALIABIDEAK (2026) | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | FASEAK | OR-DUAK | KOSTUA | L.OTAEGI | L.GO-ROSTI | A.ARZELU | J.ZU-BELD | TG KOSTUA | O. AMU-NARRIZ | I. ETXEBESTE |
| 1 | **DIAGNOSTIKOA ETA ANALISIA** | | | | | | | | | |
| | Informazio-iturriak eta agenteen identifikazioa | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Informazioa biltzea | 40 | 2.386 | 28 | 14 | 9 | 9 | 2.236 | 28 | 14 |
| | Karakterizazioak eta azterketak | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Eragileen eta beharren mapa | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Txostena idaztea | 40 | 2.386 | 28 | 14 | 9 | 9 | 2.236 | 28 | 14 |
| | Funtsezko eragileei aurkeztea | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| 2 | **HELBURUEN ETA ESTRATEGIEN DEFINIZIOA** | | | | | | | | | |
| | Heldu beharreko erronkak | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Atariko eskema estrategikoa | 8 | 477 | 6 | 3 | 2 | 2 | 447 | 6 | 3 |
| | Estrategien diseinua | 40 | 2.386 | 28 | 14 | 9 | 9 | 2.236 | 28 | 14 |
| | Ekintzen identifikazioa | 40 | 2.386 | 28 | 14 | 9 | 9 | 2.236 | 28 | 14 |
| | Adierazleen definizioa | 8 | 477 | 6 | 3 | 2 | 2 | 447 | 6 | 3 |
| 3 | **PLANA EGITEA ETA ONARTZEA** | | | | | | | | | |
| | Enpleguko eta Toki Garapeneko Plana idaztea | 159 | 9.545 | 114 | 57 | 34 | 34 | 8.943 | 114 | 57 |
| | Aurrekontuaren planteamendua | 80 | 4.773 | 57 | 28 | 17 | 17 | 4.472 | 57 | 28 |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aurkezpena eta onarpena | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Komunikazio- eta dinamizazio-plana egitea | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Gobernantza- eta kudeaketa-eredua definitzea | 20 | 1.193 | 14 | 7 | 4 | 4 | 1.118 | 14 | 7 |
| | Jarraipen- eta ebaluazio-medologia | 8 | 477 | 6 | 3 | 2 | 2 | 447 | 6 | 3 |
| **4** | **EKINTZAK INPLEMENTATZEA** | | | | | | | | | |
| | Plangintza eta antolaketa | 119 | 7.159 | 85 | 43 | 26 | 26 | 6.707 | 85 | 43 |
| | Ekintzen gidaritza | | | | | | | | | |
| | Ekintzak gauzatzea eta hedatzea | | | | | | | | | |
| **5** | **EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA** | | | | | | | | | |
| | Sei hilean behin monitorizatzea | | | | | | | | | |
| | Aurrerapen-txostena (6 hilero) | | | | | | | | | |
| | Urteko ebaluazioa | | | | | | | | | |
| | Azken ebaluazio-txostena | | | | | | | | | |
| | **GUZTIRA** | **700** | **42.000** | **500** | **250** | **150** | **150** | **39.350** | **500** | **250** |

| LIZITAZIORAKO OINARRIZKO PREZIOA | |
|---|---|
| Exekuzio materiala | 44.100 |
| Kostu zuzenak | 42.000 |
| Zeharkako kostuak (% 5) | 2.100 |
| Egiturazko gastu orokorrak | 4.410 |
| Gastu orokorrak (% 4) | 1.764 |
| Mozkin industriala (% 6) | 2.646 |
| Oinarria guztira | 48.510 |
| BEZ (% 21) | 10.187 |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

TOLOSAKO UDALA

2026IGBA0029

| LIZITAZIORAKO OINARRIZKO PREZIOA | 58.697 |
|---|---|

| ENKARGUAREN AURREKONTUA GUZTIRA | 2.026 | 2.027 | 2.028 | 2.029 | 2.030 | ENKARGUA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lizitazioaren oinarrizko prezioa | 58.697 | - | - | - | - | 58.697 |
| Tolosaldea Garatzen-en barneko baliabideak | 39.350 | 39.350 | 39.350 | 39.350 | 45.330 | 78.700 |
| **GUZTIRA** | **98.047** | **39.350** | **39.350** | **39.350** | **45.330** | **137.397** |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Tolosako Udalaren barneko baliabideak | 30.305 | - | - | - | - |

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

## 5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA.

**2026/1994 Dekretua: 2026/26 faktura zerrenda**

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

**KONTUAN HARTURIK**

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2026eko honako faktura-zerrenda hau:

26. zenbakia duena, 1.494,82 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

**E B A Z T E N D U**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

26. zenbakia duena, 1.494,82 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

| ZINEGOTZI DELEGATUA | UDAL IDAZKARIA |
|---|---|
| Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte | Sara Berasategui Fuertes |

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2026/1993 Dekretua: 2026/27 faktura zerrenda.**

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

**KONTUAN HARTURIK**

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2026eko honako faktura-zerrenda hau:

27. zenbakia duena, 94.852,59 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela,  zinegotzi delegatu honek

**E B A Z T E N D U**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

27. zenbakia duena, 94.852,59 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ESKU2ade2bca-5ef4-4f1f-af21-693976ffecd9

| ZINEGOTZI DELEGATUA | UDAL IDAZKARIA |
| --- | --- |
| Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte | Sara Berasategui Fuertes |

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:54ean.**

| **ALKATEA** | **UDAL IDAZKARIA** |
| --- | --- |

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2026IGBA0029-AKTA 2026/07/07/AKTA 2026/07/07 () |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**Sara Berasategui Fuertes**
**Udal idazkaria**
**Data:** 2026/07/16 14:22:53

**Digitalki sinatua:**

**Angel Martinez de Rituerto Arregui**
**Alkatea**
**Data:** 2026/07/16 18:19:41